

semea, zertarako?



BARCELONA'TIK

JOSEBA
INTXAUSTI

Atzo, kaletik nintzela, bi slogan eder ikusi ditut. Etxe zahar bat bota dute gure hauzoan eta berria izango denaren atari aurrean jarri dituzte slogan horiek: "La sonrisa de un niño bien vale una copa de menos", dio batek haur guraso-gabeentzat laguntza eskatuaz, eta besteak, sakonago eta beroago: "Dame una madre y te daré una sonrisa". Ez daude gaizki; nork esango luke bestelakorik? Halaz ere, beste dei bat ere behar dugu-

la esango nuke: "Dame un hijo y te daré una sonrisa".

Orain bizpahiru urte hasi zen haur gurasogabeen aldeko propaganda. Telebista, eguneroko eta aldizkarietan hamaika mintzatu da gai honetzaz: ume horiek ez dutela ezeren errurik, esaten da; sukalde bat zor zaiela gizaki normal izateko. Guraso ordeko batzuek behar dizkiegula lehenbaitlehen. Ederki. Ez giñake ausartuko bestelakorik pentsatzen. Asmo honekintxe egingo digute orain lege berri bat. Zer-bait, eta gehiago, egin da bide honetatik. Baina, hemendik egin ditugunak gora-behera, hori ote da, beti ere, irtenbideri arrazoizkoena, zuzenena?

Azkeneko hiru urteetan hirurehun bat ama ezkongabeak ezagutu ditut. Gehienak gazteak, hamabi urtetatik hogeitahamarrera bitartekoak gehientsuak. Beren ezpaintedatik jaso ditut gazte hauen arrangura eta doloreak. Jaiotza-aurreko hilabeteetarako antolatua dagoen etxe batean ezagutu izan ditut. Ez pentsa, jainkoarren, pizti bereziak direnik. Gure familia askoren erako sendietan jaiok dire. Ezagutu ditut euskaldunak ere. Baina noan gaurko nere gaira.

Igandeko hartu-emanetan maiz gogoratu izan dugu (nola ez!) laister eskuartean izango duten semea. Zuek ere, bapatean galdetuko didazute; zer egiten dute neska hauek semearekin? Ahal dutena bakarrik, ahalduten guzia. Eta egin dezaketten hori ez da gehiegi, gizonak bakar-karka ezer guti baikera, eta ama gazteok, sarritan, bakarrik aurkitzen dire. Hiru jokabide posible daukate: semea berekin gorde, haur-

**ama
ezkongabeen
semeak:
utzi?
non?
norekin?**

etxe batean sartu, guraso-ordeko batzuentzat utzi.

Amatzak ba ditu bere legeak, bere egarri eta goseak. Bere senean dagoen edozein emakume daki zer egin semearekin; mundura ekarri, hezi eta bizibide bat ideki. Eginbehar hauek betetzeko eskubi-deak ere ba ditu amagai bakoitzat. Ez dezake inork haur-galtzera behartu, ezta aita-amek ere. Familiatartek eta gizartek, beren ezinikusiaz, neska nahiz seme horren etorkizuna hondatzeko eskubiderik ez dute. Ama gazteak eta haurrak erreztasunak behar dituzte, ez ozto-poak.

Baina gizartek —denok— ez du nahi zer ikusirik emakume horrekin. Gure herriak ere beste leku askotan bezelatsu jokutzen duelakoan nago. Gaizki banengo, barka, baina bildur naiz "kristauegiak" ez ote geran. Neska hauek pekatu egin dute, eskubide kontrako seme hori mundura ekarriaz: Nornahik daki hori: aitona-amonak izango direnek, herritarrek, adiskideek. Nork bestelakorik pentsa? Honegatik, emakumeok herbestera irten beharko dute, eta beharbada sendikoeri ezer



adierazi gabe.

Bakardade honetan hasten da beren buruaren kontrako burruka: zer egin dezakete haurrarekin? utzi egingo ahal dute?, non?, norekin? Eta inoiz ikusterik izango ahal dute? Gorde egingo ote dute, ba?, eta non utzi, lantegira doazenean?, biontzako lain emango ote die lanak? Familiak zer erabakiko ote du berria jakitean? Ta senar-emazteren batentzat utzita gero, ama gaztea etsiko ote da?

Galderak eta galderak eta galderak. Eta erantzun guti, edo nahi baduzue bat bakarra: haurrarentzat ezer onik nahi badute, hamaitzok utzi egin beharko. Jakina, iñork ez ditu —hitzez eta aginduz— behartzen horretara, edo hobeki, guziok behartzen ditugu nolabait. Hain zuzen kontzientzia garbidun jendeok badakizkigu emakume **horien** betebeharrak: beren amatzaren berri dutenetik —pentsatzen dugu, eta ongi pentsatzen— haur-izatera menderatu behar dute, pekatuaren zigorra seme hori baitute —pentsatzen dugu, eta gaizki pentsatzen. Ezingo dute, beraz, haur-galtzeko ahaleginik egin.

Horra, ba: gizarteak **egin** du ama

bat. Baina gizarteak bera saiatuko da nexka hori zigortzen (eta nola, gero!). Ama nahi ditugu, baina "aparteko"; amatzaren semea kendu egingo zaio, haurra mantentzeko eta zuzenik hezitzeko ogibideak itxiaz. Barcelona batean —Espainia guzian non?— ama-seme hauentzat ez dugu bizileku egokirik. Nora joan litezken galdetzen dutenean, ez dakigu zer erantzun, neskaok ez baitute gehienetan diru poltsa beterik.

Gazteok —sarritan pobreak, heziera eskasekoak, aberatsek-eta ba dituzte izan ere bide laburragoak...— gure kontzientzia berri baten behar gorria dute. Denon artean artean gizarte-giro berri bat sortu beharko dugu. Ez da aski haurizatea bultzatzea; jaiotza-eguneraino iristeko kemena izan dutenek gehiagorik eskatzen digute, ez ditzagula zokoratu alegia. Gaztel-Herriko neska bati —agoztuan ama izango da— galdetu diot gaur:

—Zuk zer eskatuko zenuke orain, zauden egoera honetan?

—Ez gaitzatela ni eta semea bather; beste batean orain ez egiteko eskatzen dudana neuk egin badut ere. Ba nuen lagun on bat, eta sasikumea zela jakitean, aldendu egin nintzaion. Damu naiz tentelkeria horretaz; neuregan daramat jokabide haren zaxtada. Nere semeak ez ahal du nik hari emen nion tratementurik jasoko!

Ez dakit Euskal Herrian nola sentitzen duen aipatu dudan arazo hau, baina ez dut uste faltsikeriarik faltako zaigunik. Honegatik eskari bat bakarrik: semerik duten emakume guzientzat ama izateko eskubide garbi eta osoa eskatzen dut!